

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

313 - 2023ko MAIATZA

ISILDUAK IZAN DIREN
EMAKUMEAK, AZOKAKO
PROTAGONISTA

POSTONTZIA

- ✓ *Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?*
- ✓ *Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?*

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

ZUZEN ETA JATOR

* Elkar ikusiko gara ala elkar ikusiko dugu?

Elkar izenordainak elkarrekikotasuna adierazten du – hau da, A-k B-ren egintza jasaten du eta B-k A-rena (nik zu ikusi, zuk ni ikusi = elkar ikusi) – eta beste edozein izenordainek hartuko lukeen kasu marka hartu behar du beti.

- Nirekin joan > elkarrekin joan
- Ni ikusi > elkar ikusi
- Niri eman > elkarri eman

Hona hemen zuzendu beharreko esaldi trakets batzuk:

- ***Elkar ikusi gara** > Guk elkar ikusi dugu (Nik zu ikusi zaitut + zuk ni ikusi nauzu).
- ***Elkar musu eman dute** > Haiek elkarri musu eman diote (Anek amari musu eman dio + amak Aneri musu eman dio).
- ***Ez dute elkar hitz egiten** > Ez diote elkarri hitz egiten (Enekok ez dio Maddiri hitz egiten + Maddik ez dio Enekorri hitz egiten).

Adibide hauetan ikusten den bezala, subjektua NORK kasuan baldin badago, elkar beti hirugarren pertsona singularra izango da, eta horrela islatuko da aditzean:

- Opariak emango **dizkiogu** elkarri (nork: guk; nori eman: hari, elkarri).
- Pasa den urtetik ez **duzue** elkar ikusi? (nork: zuek; nor ikusi: hura, elkar).
- Ez **diote** elkarri jaramonik egin (nork: haiek; nori: hari, elkarri).

MAILOPE

• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

• ARGITARATZEN DU: Mailope Kultur Elkartea. L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. issuu.com/mailopealdizkaria

• ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hermadorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza, Haritz Larrageta eta Andoni Tolosa.

• ARGAZKIAK: Ondare Kultur Taldea, Borja Imaz, Oihan Igoa, Joxe Mari Zabaleta, Juan Antonio Garaikoetxea, Igor de Castro, Larraungo Hazia, Oskar Estanga, Araxes, J.K. Zubietta, Igor de Castro, Eneritz Estanga, Lekunberri-Larraungo Konpartsa, Labrit.

• PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• MAKETAZIOA: Noé Lopez Albizu

• TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

AURKIBIDEA

02 ▶ ZUZEN ETA JATOR

04 ▶ KUXKUXEAN Maiazteko zorion agurrak

09 ▶ UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

14 ▶ ELKARRIZKETA

Borja Imaz



17 ▶ MAITE DITUT MAITE Iontzako buelta

18 ▶ BATZARRE

20 ▶ ERREPORTAJEA




Poztasuna eta osasuna, "bizi" bizitzeko

24 ▶ KULTURA

26 ▶ KIROLA

28 ▶ EMOZIOEN MUNDUAN
Etxeko txikiak dibortzio prozesuetan



31 ▶ AGENDA

Ane Etxeberria Arguiñarena

Maiatzaren 22an, 6 urte.
Zorionak, potxola! 6 urte! Egun bikaina pasa eta jarraitu orain arte bezain alai eta jator. Muxu erraldoi bat Eneko, aitatxo, amatxo eta familia guztiaren partez.

**Jakes Iturrioz Cruz**

Maiatzaren 11n, 14 urte.
Zorionak, Jakes!! Segi orain arte bezain jator!!

**Elaia Iriarte Olano**

Apirilaren 20an, 6 urte.
ZORIONAK etxeko printzesari. Segi zure abesti eta irrifarrakin etxea alaitzen. Muxu potolo bat etxeko guztien partetik.

**Eneko Etxeberria Etxarri**

Maiatzaren 12an, 7 urte!
Zorionak, Eneko!!! Segi imajinazio horretaz disfrutatzen eta egun ederra izan dezazula lagun eta familiaren artean. Muxu handi bat guztion partez.

**Araika Etxarri Urbizu (Lekunberri)**

Maiatzaren 6an, 11 urte
Zorionak, Araika! 3. eskua estreinatu berri duzu! Orain arte bezala jarrai dezazula, jator eta zoriontsu. Muxu asko etxeko partetik!

**Maia Etxeberria Sotil**

Maiatzaren 4an, 9 urte.
Zorionak etxeko guztien partez. Ongi-ongi pasatu zure eguna mattea.

**Peru Esnaola Sotil**

Maiatzaren 26an, 6 urte.
Zorionak, Perutxo. Ongi pasa zure urtebetetze egunean. Besarkada eta muxu handi bat etxeko partez.

**Naroa Elordi Ilarregi**

Maiatzaren 11n, 12 urte.
Zorionak!! Egun ederra pasa familia eta lagunekin. Jarraitu izaten zaren bezalakoa. Zoragarria!! Muxu erraldoi bat, asko maite zaituen familia guztiaren partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

**GALTZINLABEAREN INAUGURAZIOA ATZERATU DUTE**

Eguraldia dela eta, atzeratu egin behar izan dute Lekunberriko galtzinlabearen inaugurazioa. Apirilaren 23an inauguratzea zen asmoa, aurreko astean auzolana eginda, baina, azkenean, maiatzaren 13an egingen dute aurkezpen ekitaldia, 12:00etan, eta auzolana, berriz, astebete lehenago, maiatzaren 6an. Besteak beste, txalaparta doinuak, bertsolariak, Aranzadi zientzia elkarteko kideren baten azalpena eta hamaiketako bat izanen dira.

**MANIFESTAZIOA EUSKARAREN ALDE**

Kulturaren, hezkuntzaren, euskalgintzaren, kirolaren eta kazetaritzaren esparruko hogeita pertsonak Sorionekuak manifestua sinatu zuten urtarrilaren 14an, Iruñean, euskararen aldeko aldarri gisa. Izen bereko dinamika manifestaziora deitu du ekainaren 10erako, "manifestuan jasotako printzipioak kalean aldarrikatzeko", hizkuntza eskubideen alde. Manifestuan eskatu dute eskubide guztiak "herritar orori bermatuak" izan daitezela.

**BEIGORRI PARKEA IREKITA DAGO!**

Lekunberriko Beigorri abentura parkea martxan da berriro ere, bisitariak hartzeko gogoz. Azaroaren 1era bitarte, jai egunetan eta asteburuetan egonen da zabalik. Goizean, 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, berriz, 16:00etatik 20:00etara. Helduentzako hiru zirkuitu egonen dira (1,40 metro garai gutxienez; 12 euro ordua), eta haurrentzako, bat (8 euro ordua). Erreserba egiteko, deitu 948-50 73 77 edo 689 22 24 75 zenbakietara.

► Eneritz Estanga (Intza)

*Errimak egitean
zu zaitut buruan
ta hainbat bertso saio
baditut gogoan
txikitatik plazara
zuk nauzu eraman
ta ikasiz joan nintzen
osaba alboan*

*Orain bertsozale naiz
zurekin batera
ta hori eskertzeko
hemen dut aukera
sortzaile izateko
egin saiakera
hurrengo zara
jakizu Joseba*

Doinua: Astoa ikusi nuen. Hurrengo: Joseba Eskamendi (Betelu)

ARBIDE TALDEAREN ASANBLADA IREKIARI PROPOSAMENA HAUTESKUNDEEI BEGIRA

Joan den urteko abenduan hasitako prozedurari jarraituz, eta egungo egoera aztertuta, honako erabakia hartzeko proposatzen zaio asanblada ireki honi: 2023ko maiatzaren 28ko udal hauteskundeetara ez aurkeztea.

Hiru hilabeteko prozesu baten ondorioz, eta bi asanblada irekiak egin eta gero, apirilaren 2an, Arbide Taldean bost lagunez osatutako hautagai zerrenda geneukan. Honetaz gain, Mikel Rekalde Goldaraz ordezkatzeko zerrendaburu bat ere bazen: Kontxi Arraztio Saralegi.

Egun horretantxe (17 egun faltan hautetsien zerrendak aurkezteko epea irekitzeko), enteratu ginen beste hautagai zerrenda bat eratzten hasi zela, Arbide Taldearen asanbladatik erabat aparte. Sustatzaileak berak (eta bide batez zerrenda beraren buru) telefonoz informatu gintuen, zazpi hautagaien zerrenda osatzen zuela, beti ere, gure zerrendako hautagai jakin batzuekin -hiru guztira- kontatzerik bazuen. Berarekin bat egiteko gonbidapena egin ziela eta bat ados zegoela eta beste biak proposamena aztertzen ari zirela esan zigun. Hurrengo egunetan hautagaiek horren guztiaren berri eman zieten Arbide Taldeko kideei eta azken bi hautagaiek zerrenda batean nahiz bestean lanerako borondatea adierazi zuten.

Arbide Taldeko zerrendaburuak segituan hartu zuen erabakia behin betiko alde batera egiteko, eta, horrekin batera, eraketa prozesua eten egin zen. Hiru hilabeotan osatzen ari zen taldea deseginda geratu da. Ia ez dago denborarik egoera bideratzeko. Ondorioz, eta orain artean egindako lanari bukaera emateko, testu buruan idatzita agertzen den erabakia hartzeko proposatzen zaio Arbide Taldeak antolatutako asanblada irekiari:

- Arbide Taldeak ez du bere burua aurkeztuko 2023ko maiatzaren 28ko udal hauteskundeetara.
- Eskerrak ematen dizkie Beteluko herritarrei 24 urte hauetan emandako babesa eta sostenguagatik.

LEKUNBERRIKO TALDEA ALDERDIAK ATERA DUEN AGIRIARI ERANTZUNEZ

Lekunberriko Taldea alderdi politikoak agiri bat atera du Kirol Mankomunitatean klubak dirulaguntzen inguruan hartu den erabakiaren harira. Arantz, Areso, Betelu eta Larraungo udaletako ordezkariak zenbait azalpen eman nahi ditugu:

-Legegintzaldi honetan lan handia egin dugu udalari eta erabiltzaile guztien arteko berdintasun printzipioa bermatzeko, eta ahaleginak egin ditugu Mankomunitatearen arauak zorrotz errespetatzeko. Baita dirulaguntzen gaian ere.

-Dirulaguntza horiek arautzen dituzten oinarrietan baldintza batzuk ezartzen dira klubak dirulaguntza horiek jasotzeko aukera izan dezaten. Baldintza guztien artean, hauek daude:

Hirugarren.- Diruz lagungarriak diren egitasmoak.

Diruz lagungarri izateko, kirol jarduera egitasmoak eskaria egin den denboraldian bertan gauzatu behar dira eta eskolako adinean dauden jarduera fisikoak lagundu behar dute.

Laguntzaren xede diren jarduerak hurrengo baldintzak bete behar dituzte:

1. Oinarrizko kirola sustatzea helburu duten jarduerak izatea.
2. Eskolako adinean dauden ariketa fisikoaren praktika sustatzen duten jarduerak izatea. Jarduera hauek irekiak izan behar dute, honekin esan nahi da diskriminaziorik ez izatea genero, arraza, hizkuntza, ideologia, orientazioa eta abar dela eta.
3. Herriko elkarte-ehundura sustatzen eta sendotzen duten kirol jarduerak izatea.
4. Kirol eta gizarte aldetik interesa duten jarduerak izatea baldin eta Mankomunitatearen beste laguntza lerroetan ez badaude jasoak.

Dirulaguntzaren helburua zen kirol klubei laguntzea 2021eko abuztuaren 1etik 2022ko uztailaren 31ra bitartean egindako jarduerak eragindako gastuetan.

-Beti Kozkorrek, Larraun Pilota Elkartek eta SKADIK baldintzak betetzen zituzten. Ez, ordea, Lekunberri Kirol Elkarteko jardura gehienek. Lekunberri KEk barne hartzen dituen diziplinetako batzuek ez dute oinarrizko kirola sustatzeko jarduerarik egin epe horretan. Eta beste diziplina batzuek Mankomunitatearen laguntza lerroak jaso dituzte eta jasotzen ari dira, begiraleen gastuak ordaintzeko. Lekunberri Kirol Elkarteen barneko diziplinen artean, Judokoak bakarrik betetzen zituen baldintzak.

-Bozketa egin aurretik, proposatu genuen gaia gai-zerrendatik atera eta klubak aurkeztutako dokumentazioa aztertzea, ez baitziguten bidali bileraren aurretik. Berrito bildu eta legegintzaldia

amaitu aurretik akordio bat bilatzeko eskaria egin zen, baina Lehendakariak ez zuen onartu.

-Arkaitz Goikoetxeak dirulaguntza proposamen bat aurkeztu zuen arazoari irtenbidea emateko, oinarrietan agertzen diren baldintzak kontuan hartuz, eta bozkatzeko proposatu zuen, baina ez zitzaion onartu.

-Joseba Ordoki lehendakariak, beraz, bere proposamena bakarrik aurkeztu zuen bozketara, eta dena batera bozkatzeko zela erabaki zuen; guri iruditu zitzaigun baldintzak betetzen ez zituzten jarduerak ezin zirela diruz lagundu, eta irregularitasunen bat egin baino lehen, kontrako botoa ematea edo abstentziora jotzea erabaki genuen. Dirulaguntza eskari guztiak batera bozkatu zirenez, baldintzak betetzen zituzten klubentzako laguntzak blokeatuta gelditu dira. Egoera hori saihestu zitekeen, Beti Kozkorrek, Larraun Pilota Elkartek eta SKADIK baldintzak betetzen dituztelako, eta beraz, dirulaguntza jaso behar dute.

-Azkenik, uste dugu garaiz gaudela egoera honi irtenbidea emateko, eta lanean jarraitzeko Mankomunitatea osatzen duten herri, kirolari eta klub guztien alde, salbuespenik gabe.

Kirol Mankomunitateko udal ordezkari hauek sinatzen dute:

Nerea Martirena (Araizko Udala), Javier Otermin (Aresoko Udala), Igor Otermin (Beteluko Udala) eta Xabi Azpiroz (Larraungo Udala)

IORTIA CLÍNICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

ekin rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Arantz

Lontxo Otamendi Artola

Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

INFORMAZIO-OHARRA

Azken asteotan Etxeberri eta Lekunberriko industrialdearen arteko gas kanalizazioaren proiektuari buruzko adierazpen sorta bat agertu dira eta horien aurrean, batzuei erantzunak eman nahi dizkiegu eta beste batzuk gezurtatu egin nahi ditugu. Hemen bizi garen pertsonentzako, gure familien bizitzak dira garrantzitsuenak.

Guztionez Aralarko Mendia toki esanguratsua eta maitatua da. Gure aitona-amonen, eta batzuentzako gurasoen ere, bizibidea eta sostengua izan da.

Egungo gas hornidura eta etorkizuneko bermatu ahal izateko Lekunberriko industrialdeko hainbat enpresaren beharra eta eskaria daude proiektu honen jatorrian. Eskari hauen aurrean, Nafarroako Gobernuak interes orokorreko moduan ebatzi zuen proiektu hau.

Industrialdeak Lekunberriko langileez gain beste tokietakoak ere baditu, zehazki 150 pertsonak egiten dute lan bertan. Eskualdeko langileei ere ematen die lana, 100 langileri, Nafarroako beste eskualdeetatik datozenak, Sakanatik, Iruñetik, Irurtzundik... Bai eta Gipuzkoatik ere osotara 500 familia inguru batuz.

Proiektu honek beharrezkoak diren azterlan guztien babes eta organismo ezberdinen oniritzia jaso du eta 5.000 zuhaitzen galerarik ez duela ekarriko argitu nahi dugu, hala entzuten ari baita. Zehazki 1.200 zuhaitz izango dira eta ondoren berriro birlandatuko direnak.

Ingurumen eragin txikiagoa

4 proiektu ezberdin hartu dira aintzat eta egun onarturik dagoena aukeratu da ingurumen-eragin txikiagoa eta eragin-ekonomiko txikiagoa duelako, bai eta gure lurraldearentzako nahi dugun trantsizio ekologikoko prozesuan bideragarritasun handiena duena delako ere.

Proiektua Plazaolaren Bide Berdean egitea alternatiba bideragarria dela diotenei, hainbat arrazoi eman nahi dizkiegu hori ezin daitekeela egin azaltzeko. Xehetasunez aztertu ondoren, aukera hori ere kontuan hartu baitzen, arrazoi tekniko, legal eta ingurumenari zegozkienak mahaigaineratuz baztertu zuten adituek, arrazoi horiek honakoak direlarik:

1. Plazaolaren Bide Berdeak tunel ugari ditu eta horrek bideraezina egiten du bertan hodia instalatzea, tunelek ez baitute zabalera nahikorik.

2. Plazaolaren Bide Berdea Nafarroako Gobernuaren errepide galtzada da gaur egun, horregatik, errepideen araudi propioarengatik, ez da bideragarria galtzada erdian gas hodi bat instalatzea.

3. Ibilbidearen zati handi bat ibai ertzetik doa, zortasun gunearen barrutik, hortaz, araudiarengatik, proiektuak ezin du baimenik jaso.

4. Ibilbidearen zati handiaren ur hornidurarako hodi bat dago eta bidearen zabalera murrizten du horrek. Gas hodia alboetan instalatu beharko litzateke, ezponden segurtasuna arriskuan jarriz eta lur-jausiak egotea erraztuz.

5. Plazaolaren Bide Berdeak hiru-lau metroko zabalera du bere gehiengan. Bide horretan gas hodia instalatzeko beharrezkoa den 8 metroko pista bat egokitzea ezinezkoa da. Pista hori gehiago murriztea bideraezina da ikuspuntu konstruktibotik, makineriak ezingo bailuke bertara sartu.

Bere garaian, Leitza gas-hornidura instalatu zenean, Plazaolako bide berdetik eramateko aukera ere aztertu zen, baina hori mendian egin zen orain aztertu diren ezbehar berdinegatik eta orain aurreikusten diren eragin berdinekin.

Lekunberriko, eskualdeko eta inguruko eskualdeetako herritarrentzako dakartzan aukeren eta ingurumenarekiko begirunearen artean oreka bilatu dugu beti, eta lortu egin dugu.

Zain dezagun Aralar. Zain ditzagun guztion bizitzak.

Geroa Bai

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK
.....

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

Legegintzaldi honetarako hautagaiak



Alkatetzarako:

1. Mikel Uharte Martija

Zinegotziak:

2. Iruñe Juanena Ayestaran

3. Josu Oreja Arratibel

4. Xuban Goldarazena Azpiroz

5. Ainhoa Fernandez Galdeano

6. Mikel Mugiro Sorabilla

7. Joseba Artzeluts Bizkarrondo

Ordezkoa:

1. Lorea Lasarte Elizalde

Orain dela lau urte, herritarren babesari esker, Larraungo Udala eraldatzeko atea ireki genituen eta bailara biziberritzeko ekimenari heldu genion. Ez zen erronka makala aurrean geneukana, baina gogo handiz ekin genion lanari. Iritsi da momentua egindakoari eta egiteke daukagun bideari erreparatzeko.

Proiektu eta zeregin asko aurreikusten zituen programa aurkeztu genuen eta ildo nagusiak betetzea lortu badugu ere, onartzen dugu ez garela iritsi egitasmo guztiak gauzatzera.

Uneoro herritarrengandik gertu egoteko eta gardentasunez jokatzeko ahalegin berezia egin dugu, Larraundar guztiak udaleko atea irekita izan dituztelarik beren eskaera eta proposamenak egiteko. Kontzejuekin ere harreman zuzena izan dugu eta lankidetzara horrek onura handiak ekarri dizkie gure herriei.

Larraungo udalak parte hartze aktiboa izan du Nafarroako Tokiko Mapak zehazten duen gure eskualdearen garapenean. Aurrera begira, aktibazio sozio-ekonomikorako parte-hartze prozesutik ateratako emaitzak garatzea izanen da gure helburua, eskualdea indartzea onuragarria izango baita gure bailararentzat.

Larraunen bizitzeko aukerak zabaltzen jarraituko dugu, etxebizitza politikak gauzatu eta hirigintza araudia berrikusiz. Herrietako zerbitzuak (garraioa, Internetarako konexioa...) hobetzen ahaleginduko

gara, Nafar Gobernuari eskaera zuzenak eginez eta behar diren hitzarmenak sinatuz.

Dinamika soziokultural aberatsa bultzatuko dugu herri guztietan, euskara ardatz izanik. Gainera, eragileek egiten duten lana baloratzen dugu eta behar duten laguntza ekonomikoa eta baliabideak emango dizkiegu, beraiekin hitzarmenak sinatuta.

Gazteekin elkartuko gara beren beharrak ezagutzeko. Izan ere, bertan bizitzeko aukera bermatu beharrean gaude. Adinekoak ere ez ditugu ahaztu behar eta aisialdia zein zaintzarako zerbitzuak hobetzeko apustua egingo dugu.

Etorkizun osasuntsua izateko hezkuntza eta kirola ezinbesteko tresnak dira eta horietan ahalegin berezia egingo dugu inor ez dadin kanpoan gelditu. Ezin ahaztu, genero ikuspegia eguneroko jardunean txertatu behar dugula eta legegintzaldi honetan, besteak beste, berdintasun plana osatuko dugu.

Bizi garen eremua kontuan hartuz, azken urteetan ingurugiroa jasaten ari den presioak kezkatzen gaitu eta gure paisaia eta naturaren defentsa sutsua egingo dugu. Gainera, gure ondarea ezagutu, zaindu eta balioan jartzeko ekimenak sustatuko ditugu.

Hasitako ibilbideak ez du etenik eta Larraungo udalean sortu den dinamika berritzailea ezin da apurtu. EH Bildu prest dago bide horretan lanean jarraitzeko.



LEKUNBERRIKO EH BILDU

Alkatetzarako:

1. Arkaitz Goikoetxea Arriola

Zinegotziak:

2. Miren Goikoetxea Arregi

3. Mikel Betelu Gorostegi

4. Juan Mari Irastorza Garaño

5. Ane Barberia Urreaga

6. Carlos Balda Calahorra

7. Ane Galdos Maiztegi

8. Josu Valencia Martiarena

9. Garazi Martirena Zubieta

Gobernatzeko estilo berri bat eraman nahi dugu Udalera: hurbila, entzuten dakiena, komunitatearen indarrean sinesten duena. Maite duzun Lekunberri. Herritarrekin eskuz esku, egingo dugu!

Udal Gardentasuna

Entzuteko jarrera eta harreman hurbil eta zuzena izango dugu herritarrekin, kontratazioetan izan diren irregulartasunak bukaraziko ditugu, eta uraren gaian, informazio eman eta tasen arloari irtenbidea emango diogu.

Etxebizitza

Etxebizitza arazoa konpontzeko alokairu publikoa bultzatuko dugu, Errekondoa kaleko lursailetan etxebizitza berriak eraikiko ditugu eta eskola zaharretako eraikinei aterabide bat ematen saiatuko gara.

Mugikortasuna

Zirkulazioa eta aparkalekuen egoera hobetu, oinezkoen segurtasuna handitu eta sentibilizazioa landuko dugu. Herriko Plazan sortu diren arazo eta desadostasunak konpontzearen aldekoak gara. Bizilagunekin, ostalariekin eta merkatariekin adostuta egingo ditugu egin beharreko aldaketak.

Mantenimendua

Mantentze plan bat egingo dugu, auzoz auzo, herritarrekin lankidetzan, zerbitzua indartuz.

Garapen sozioekonomikoa

Mendialdeko Aktibazio Sozioekonomikorako Plana landuko dugu eremu hauetan: elikadura osasungarri eta jasangarria; Energia Berdearen Industria; Industria orokorrean; Turismo jasangarria; eta Merkataritza eta Ostalaritza. Industriagunean dauden terreno hutsetan aktibitate ekonomiko berriak jartzeko lan egingo dugu.

Ingurumena-Jasangarritasuna

Azpiegitura Berdeen Sarea indartuko dugu. Iturburuak berreskuratu eta Uraren Ibilbidea sortuko dugu. Ekogune bat jarriko dugu martxan, sentibilizazio lana egiteko, formazioa eskaintzeko eta hainbat proiektu lantzeko: nekazaritza eta lorezaintza ekologikoa, elikadura burujabetza... Energia Berriztagarrien Komunitateak babestuko ditugu, eta hobari sistemak sustatu herritarrentzat.

Berdintasuna

Berdintasun teknikari bat kontratatuko dugu, eta berdintasun plana osatuko dugu Berdintasun Mahaiarekin. Kontziliazioa eta zaintza errazteko baliabideak jarriko ditugu.

Euskara

UEMAN sartuko dugu Lekunberri, euskararen erabilera handitzeko neurriak hartuko ditugu eta Euskara Batzordean aktiboki jarraituko dugu.

Gazteak eta nerabeak

Gazte problematikari erantzuteko, hainbat arlo landuko ditugu gazteekin: etxebizitza, harremanak, euskara, berdintasuna, lana... Nerabeei dagokienez, aisialdi zerbitzua sortuko dugu.

Kultura

Kultur Mahaia irekiko dugu, herritarrek eta eragileek parte har dezaten. Azpiegiturei dagokienez, berrantolaketa bat egiteko prozesua jarriko dugu abian.

Kirola

Heziketa eta osasuna sustatzeko eta komunitatea indartzen laguntzeko arlo gisa ikusten dugu kirola. Beti Kozkor udal-kluba despolitizatzearen aldekoak gara, kirol instalazioak hobetuko ditugu (erabilera anitzeko gelak sortuz...) eta kirola-natura programa landuko dugu.



LEKUNBERRIKO TALDEA

Alkatetzarako:

1. Gorka Azpiroz

Zinegotziak:

2. Maria Jesus Ayestarán

3. Mikel Irujo

4. Idoia Olaskoaga

5. Ioseba Ordoki

6. Ralph Ndongo

7. Eva Fernandez

8. Rafa Sarriegi

9. Lorea Mayayo

Ordezkoak:

1. Maite Zubillaga

2. Vicente Michaus

3. Luisi Aldaburu

Gu lantalde bat gara, pertsona anitzez beteriko taldea, eta laster ditugun hauteskundetara gogoz aurkezten gara.

Talde hau independentea da, herrikoa eta langilea, herria eta bizilagunen bizitzak erdigunean jartzen jarraituko duena.

Gure inguruari erreparatzen badiogu, Lekunberri aurrera egin duen herria da: kalitatezko zerbitzuak ditugu, kalitatezko enpleguak, ingurugune zaindua, eta bizi kalitate handikoa, lagunartea eta elkarbizitza ezinbestekoa dugu.

Hauteskunde hauetan bi aukera daude: alde batetik, talde politiko baten esanetara daudenak, eta bestetik, gu Lekunberriko Taldea, herri taldea eta herritarren esanetara jartzen garenak.

Gure herria egunero zaintzen jarraitu nahi dugu, dagoena txukun mantendu, baliabide gehiago sortu, zerbitzu eta azpiegiturak hobetu nahi genituzke, besteak beste:

- ▶ Eskola sarrerako estalkia jarri
- ▶ Hainbat kaletako lurzorua hobetu (Iturritak, Beigorri Parkekoa, Rural Kutxaren ingurukoa, eskola atzeko aldeko bidea, frontoiko plaza...)
- ▶ Igerilekuko udarako zonan haurrentzako ur parkea sortu
- ▶ Alde Zaharrea egoera txarrean dauden adokinak eta lurzorua adatu
- ▶ Nafar Gobernuarekin batera, herriaren sarreran, San Migeleko bidegurutzean errotonda jarri
- ▶ Etorbide nagusiko espaloioak konpondu
- ▶ Albisurako bidea oinezkoentzat ibilbidea segurua izateko lanak egin
- ▶ Erabilera desberdinetako espazioa eraiki

Etxebizitza dagokionez, Iturriburuko eraikinari bukaera ematea da gure helburua, orain arte egin den lan guztiari amaiera emanez, etxebizitza horiek merkatuan jarri, bai gazteentzat nola helduentzat.

Gazteentzako dirulaguntza zehatza aterako dugu gastu energetikoen ordainketan laguntzeko.

Lekunberri ON planarekin jarraituko dugu: tokiko enplegua sendotu, langileen formakuntza sustatu, eta ekonomia jasangarria eta berdea bultzatu.

Kultur eta kirol agendak, bete beteak nahi ditugu, guztion gozamenarako, bertako kultur taldeen eskutik, bertan eratzen diren kirol talde ezberdinekin batera, etorkizuna babestuz.

Gure historia eta ondarea garrantzitsuak dira guretzat, horregatik orain arte izan ditugun historiari buruzko hitzaldiak, ikastaroak eta ekimen desberdinak egiten jarraituko dugu.

Era berean, jaia eta euskara uztartu, Lekunberriko Euskal Jai bat antolatuko dugu.

Gizarte zerbitzuak kalitatezkoak eta duinak izateko lanean jarraituko dugu; Eguneko Zentroa, Jubiloteka, Ludoteka eta osasun zerbitzuak mantentzeaz gain, zerbitzuak zabalduko ditugu Nafar Gobernuaren laguntzaz.

Lekunberriko Taldea herriaren eta bizilagunen alde lan egiteko talde irekia da.

Azken finean, eta laburbilduz, gure herritarrak gure politiken eta akzioen erdigunean jartzen jarraituko dugu. Guztietan ere, burua eta bihotza ipintzen.

Etorkizuna lantzen jarraitu nahi dugu. Zurekin batera.



ARAIZKO EHBILDU

Alkatetzarako:

1. Joxe Manuel Zubillaga Mugertza

Zinegotziak:

2. Maider Agirrebarrena Beldarrain

3. Igone Vazquez Angulo

4. Asier Arsuaga Ugalde

5. Unai Otxoa Oiarbide

6. Matias Goikoetxea Irigoien

7. Mari Paz Perez Izko

12

Hauek dira Araizko EH Bilduren proposamenak legegintzaldi honetarako:

Etxebizitza oinarrizko eskubidea

Oinarrizko eskubide bat delako, herritar guztiak etxebizitzak prezio eskuragarrian lortu ahal izateko aukeraren alde lan egingo dugu. Aurrez lortutako etxebizitza sozialaz gain alokairu sozialeko etxebizitzaren eskaintza indartu nahi dugu eta udalerriko etxeak etorkizuneko desafio demografikorako prestatu.

Berdintasunetik, elkar zaintza eta antolakuntza bultzatuz

Feminismoaren bidean aurrera pausoak eman nahi ditugu, elkarlana eta antolakuntza oinarri hartuta. Emakumeen alde borrokatuz, izan eta maitatzeko aniztasuna errespetatuz non zaintza guztion ardura izango den, giza baliabideak eta ekonomikoak elkar zaintzarako bideratuz. Martxoaren 8ko aldarrikapenak egunerokora ekarriz.

Ingurumena, elikadura eta trantsizio energetikoa

Gure ingurumen-altxorra balioan jarri nahi dugu eta ezinbestekoa da bere ustiapena neurritz egitea eta zaintzea. Ur eta baso baliabideen kudeaketa kontzejuekin elkarlanean ulertzen dugu, herri langile berriak emango dizkigun aukerekin. Bertako nekazariekin elikadura burujabetza bultzatzen jarraituko dugu eta kanpo energiarekiko dugun menpekotasuna gutxitzea izango da erronka, bertatik eta bertakoentzat sortutako berriztagarrien energia-komunitateen bidez.

Euskara, Euskal Herria eta kultura

Euskara dugu gure udalerriko ezaugarri, arnagune gara. UEMAKo kide izanik, euskarari eusten nahiz honi lehentasuna ematen jarraituko dugu eta baliabideak eskainiko dizkiogu ez dakitenengana iritsi dadin. Gure txikitasunetik Euskal Herriko beste eskualdeekin (Hergarai) barne-harremanak sendotzeko apustua berresten dugu eta gure helburua ere izango da sorkuntza kulturala bultzatzea Udalbiltzarekin elkarlanean.

Mugikortasuna, etorkizuneko erronka

Energi krisiaren ondorioz zalantzarik gabe mugikortasuna bilakatuko da etorkizuneko erronketako bat. Nafarroa eta Gipuzkoako herrien arteko garraio publikoa indartzea aurrez hartutako desafioen artean daukagu. Garraio partekatuaren aldeko apustua ere lagungarria izango da bailara barruko zein inguruko udalerriekin harremanak sendotzeko.

Turismo eredu jasangarria, zirkularra, elkarlanean landutakoa

Gure paisaia eta balioak errespetatuko dituen turismo eredu jasangarri baten alde ariko gara lanean, aldi berean eredu horrek ekonomia zirkularra suspertzen duela ziurtatuz. Elkarlanean landua, tokiko eragileekin erabakiak hartuz, herriek bizigarri izaten jarrai dezaten. Turismoaren eragina eta ondorioak neurtzeko baliabideak martxan jarriko ditugu behar den nean neurriak hartzeko.



ARRITXU TALDEA

Alkatetzarako:

1. Lontxin Zubillaga Goikoetxea

2. Igor Otermin Eguia

3. Maria Cristina Val Sardo

4. Iñaki Elizalde Zubillaga

5. Nerea Yeregui Balda

6. Ander Prados Otamendi

7. Aitziber Otamendi Echarri

Ordezkoak:

1. Rakel Estanga Beraza

2. Joseba Eskamendi Iriarte

3. Amaia Urrestarazu Garmendia

13

Honako hauek dira Arritxu taldeak heldu den legegintzaldirako zehaztu dituen ildo nagusiak:

- ▶ Azpiegiturei dagokionez, eskolako igogailuaren proiektua hasi eta bukatu.
- ▶ Hirigintza planari amaiera eman eta etxebizitza publikoari bultzada eman, apartamentu publikoak sortuta.
- ▶ Energia berriztagarrien azterketa egin, aukerak baloratu eta aurrezpen ekonomikoa gauzatu urteko gastuetan.

- ▶ Agenda 2030ekin jarraitu lanean.
- ▶ Berdintasun plana eta mugikortasunaren arloak sendotu.
- ▶ Bestelakoak: herriari aurpegi garbiketa bat eman mantentze lanekin (bai herrian, baita mendiko lanak ere).

Hau guztia aurrerago landu nahi dugu, batzar ireki bat antolatuta. Jendearen iritzia entzun, eta sare bat eratu nahi dugu, informazioa biltzeko eta zabaltzeko, udala herriari gerturatzeko asmoz.

**BERTAKO HARAGIA**

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.

Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com



696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**



etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

“Minutu bat kostatu zitzaidan errugbi inklusiboan sartzea eta, gorputzak uzten didan bitartean, ez naiz aterako”

Lekunberrin bizi da Borja Imaz ordiziarra. Bere jaioterrian errugbiari gaztaroa eskaini zion eta, urte batzuetako hutsunearen ostean, Hernaniko beteranoekin dabil orain. Bertan ezagutu zuen errugbi inklusiboa eta, probatu orduko, barruraino zegoen sartuta. Gaur egun, Ordizian errugbi inklusiboko talde bat eratu dadin dabil lanean.

Nola hasi zinen errugbiaren munduan?

Errugbia gorputz hezkuntzako klase batean ezagutu nuen. Behin, maisua meloi itxurako baloi batekin etorri zitzaigun eta, 11 urterekin, hori zer zen ez genekielako, esplikatu zigun zer zen errugbia. Klase horretan oso gustura ibili ginen jokatzeko. Eta

futbolekin ez nintzen oso ona; beti aulkian... Orduan, klase bukaeran esan zigun maisuak: “Norbaitek larunbatean Ordiziako errugbi zelaira gerturatu nahi badu, etor dadila”. Etxera joan nintzen eta esan nion amari: “Ama, larunbatean errugbian jokatzera noa”. Ni beti argala izan naiz. “Zu hilko zaituzte,

zu txikia zara...” eta nik: “Errugbira noa!”. Eta azaldu nintzen, eta imajinatu: 11 urte, belarra, lokatza... Oroitzapena dut harrapaketa joko antzeko baten sentipena utzi zidala: aurkaria harrapatu, lurrera bota eta ondoren lokatzetan... Eta hurrengo eskola egunean, ez dakit zer kontatu nien nire ikaskideei, baina gelatik bederatzi lagun erakarri nituen errugbira.

Artean ez zegoen errotuta errugbia Ordizian?

Ordizian, eta toki guztietan, errugbia amateurra zen. Taldea ez zegoen Ohorezko Mailan, gaur egun dagoen bezala; garai hartan euskal liga baten barnean bazebilen, baina oso desberdina zen daukagunarekin alderatuta.

Ordutik jarraitu zenuen errugbiarekin...

11 urte nituenetik 18 bete arte. Momentu horretan pasatzen zara adinkideekin jokatzetik 30 urteko gizonekin jokatzera, pentsa. Tamalez, ikasle txarra nintzen eta, 17 urterekin hasia nintzen fabrika batean txanda bitan lanean; nekez entrenatu ahal nintzen eta uztea erabaki nuen. Oraindik ere, arantza hori kendu ezinik nabil. Gainera, Ordizian eta Euskadiko Selektzioan nenbilerako hartu nuen erabakia; oso momentu ona bizitzen ari nintzela kirolari dagokionez. Baina lana...

Aurrerago, eta 23 urte nituela, Ordiziako Ohorezko Mailara igotzea lortu zuen eta senior bigarren taldean sartzeko animatu ninduten lagunek. Eta tarteka kirola egiten

“«Zu hilko zaituzte, zu txikia zara...», esaten zidan amak”

banuen ere, bost urteko hutsune hori oso handia izan zen, errugbia oso kirol fisikoa da eta. Gainera, nik jokalaria-lerroen arteko lotura den erdi-mélée bezala jokatzeko nuen. Postu horretan jarduteko baloi guztietara iritsi behar zara; baloia 40 metrotara dago, eta hura harrapatu eta jokoan jarri behar duzu. Horretarako, korrika asko egin behar duzu eta nik baloia ikusten nuen eta pentsatzen nuen: “Ez naiz iristen”, kar-kar. Gero lesio bana eduki nuen eskumuturrean eta sorbaldan, Nafarroara bizitzera etorri nintzen eta, orduan, berriz ere, utzi nuen. 25 urterekin errugbia utzita nuen nik.

Eta nola ezagutu eta inplikatu zinen errugbi inklusiboan?

Errugbia utzi banuen ere, hamaika partidu ikusten jarraitu dut eta zaletasun hori ez dut galdu. Eta, pandemiarekin, hainbeste denboran etxean edukita, World Rugby federazioaren webgunean Internet bidezko entrenatzaile ikastaroak bazeudela ikusi nuen. Besterik egiteko ez zegoela, kurtso batzuk egin nituen. Konfinamendua bukatu zenean, Ordizian lan egiten nuela oraindik, egun batean nire entrenatzailea izandako batekin hizketan, ikastaro horiek eginak nituela komentatu eta gazteen taldeetan entrenatzaile ibiltzea eskaini zidan. Orduan hasi nintzen, pixkanaka, errugbi inklusiboaren inguruan zerbait entzuten.

Handik gutxira, Hernaniko lagun batekin beteranoekin jokatzera gonbidatu ninduen, eta animatu nintzen. Horiekin nenbilerako, egun batean, zelaira lehenago jaitsi eta



Arg.: Borja Imaz

“Errugbiaren oinarriak handienak umiltasuna eta errespetua dira”

ikusi nuen, gure aurretik, inklusiboko taldea entrenatzen zela, eta ez hori bakarrik: nirekin zebiltzan beterano batzuek parte hartzen zutelako. Horietako batek galdetu zidan “jokatu nahi duzu?”. Nola ez, ba! Haiekin ibili nintzen. Eta egun hartatik mutiko batek esan zidan zerbait dut gogoan. Ariketa bat egiten ari ginen, zehaztu genuen nola egingo genuen, burutu eta, bukatutakoan, galdetu zidan: “Ondo egin dugu?”. “Bai, ondo egin dugu!”, erantzun nion. Eta ikusi nuen bere poz aurpegia... Hiru urte neramatzien 16 urte azpikoak entrenatzen, eta inork ez zidan inoiz galdetu horrelakorik, kar-kar. Momentu hori niretzat izan zen... “Kontxo! Hau nahi dut! Hauekin egon nahi dut!”

Errugbi inklusiboan edonork har dezake parte, ezta? Talde mistoak dira, beteranoak ere badabilta horretan...



Arg.: Borja Imaz

Bai, talde mistoa da. Hernaniko errugbi taldeko neska batzuek ere parte hartzen dute, guraso batzuek... Eta jokalaria batzuekin dabilta laguntzaile batzuek ere parte hartzen dute. Adina aldetik ere askotarikoa da; beteranoez gain, 16 urtez azpiko batzuk ere animatu izan dira inoiz. Talde bereko edozein federatut jokatzeko ahal du. Oso

"Haien ondo egiteko gogoa eta ilusioa kutsatu egiten da"

aberasgarria da.

Zer eskaintzen dio errugbiak inklusiboan dabilen jokalarari bati?

Ekipo bateko kide izatea, talde lanean aritzea... Azken finean, errugbia, talde kirola da. Horretaz aparte, lagunak egitea, kirola egitea, ondo pasatzea eta, asko ahalegintzen direnez, beren gaitasunak handitzea. Eta joaten garenean beste talde baten kontra jokatzera, "hirugarren denbora" famatu hori dago, zeinean anfitrioiak gonbidatzen duen kanpotik etorri den taldea jatera eta edatera. Eta, horrela, lagun asko egiten dira; partida eguna ongi pasatzeko egun bat da.

Inklusiboan bakarrik ibiltzen ez den beste jokalarari bati zer eskaintzen dio?

Ni oso gustura sentitzen naiz. Pentsatzen dut halaber haiekin zerbait polita egiten ari naizela. Nik maite dudak kirolaz gozatzen ari direla ikusita disfrutatzen dut, eta haien ondo egiteko gogoa eta ilusioa kutsatu egiten dira. Ahazten zara kirol lehiakorraz. Helburua, inklusiboan, entrenatutakoak aurrera eramatea da. Baditugu gure gako-hitzak jokaldi batzuk gauzatzeko: "Txixare! Dortoka!"... Aurkariak engainatzeko taktikaren bat ere asmatu izan dugu inoiz nahi gabe, kar-kar. Eta oso ongi pasatzen duzu, barre egiten duzu... Energia positibo hori jasotzea oso polita da. Minutu bat kostatu zitzaidan sartzea eta ez naiz aterako... gorputzak uzten didan bitartean.

Oso uztargarria da errugbia inklusibotasunarekin, ezta? Kiroltasun handiko kirola da.

Bai, errugbiaren oinarriak handienak umiltasuna eta errespetua dira. Taldekideen arteko errespetua, aurkariarekikoa, epailearekikoa... Aurkariaren kontra 80 minutuz zabilta borroka batean, nork



Arg.: Borja Imaz

"Lortuko dugu Ordizian errugbi inklusiboko talde bat eratzea"

irabaziko. Eta kolpeak daude, kontaktu handiko kirola izanik. Baina kontaktu hori guztia errespetuz egiten da. Eta hirugarren denbora... Hori, seniorretan, kasik parranda hasiera da. Eta, bai, errespetua hain garrantzitsua izanik, inklusiborako oso kirol egokia da. Tamalez, beste kirol batzuetan, ez dago kiroltasun maila hori.

Talde asko dago Euskal Herrian?

Ez daude talde asko, baina sustatzen ari dira. Ordizian errugbi inklusiboko hirugarren topaketa egin berri dugu eta horren helburua taldea eratzea da, datorren urterako ez bada, hurrengorako. Baina buruan sartu zaigu; klub bezala egin nahi dugun zerbait da eta lortuko dugu. Orain dela bost bat urte sortu zen *Bultza liga-n* parte hartzeko gogoa dugu. Gainera, beste talde bat sartzeak bi partida gehiago jokatzeko aukera ematen die besteei. Eta Gipuzkoako

bi talde sendoenek, Hernanik eta Ordiziak, talde inklusiboak edukita, errugbi inklusiboari oihartzun handiagoa emango genioke. Eta, era berean, oso aberasgarria izango litzateke klubentzat.

Ligaz gain, lagunartekoak ere badira, Valentziako Culleraino joanak dira Hernanikoak, pentsa! Eta Oviedora joango dira hilabete honetan. Autobusean giro ona dago... Ikaragarria da nola hartzen duten partidaren txipa. Oso mentalizatuta ibiltzen dira partida eguna heltzen denean, beste taldeetan dabiltzanak bezalaxe. Beren errutinatik ateratzeko oso ona da.

Momentuz badira taldeak Iruñean, Getxon, Bilbon, Hernanin... eta, aurki, Ordizian.

Nafarroan oraindik ez dago oso zabalduta agian?

Ez pentsa! Iruña Rugby Taldeak oso talde inklusibo handia du, ia bi talde ateratez hortik. Kirol inklusiboa geroz eta ezagunagoa da, futbolearen ere badago, eta zenbat eta talde gehiago sortu, orduan eta jende gehiago erakartzeko aukera.

Hurrengoa:

Asier Mikeo (Lekunberri)



Oihan Igoa (Aldatz)

Zergatik aukeratu dut?

Mendian korrika hasi nintzenetik egiten dudak entrenamendua da. Ea sasoiaren nagoen ikusteko erabiltzen dut; orduetik jaisten badut, primeran.

maite ditut maite gure bazterrak

lontzako buelta

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 10km
Desnibela: 410m
Zailtasuna: erraza



Bidea:

- 1 Aldazko iturritik aterata, harrobi aldera doan bidea hartuko dugu, GR12ra iritsi arte. Ondoren, GR12-ari jarraituko diogu, Berueteko muga pasa eta lontzako askara iritsi arte.
- 2 Behin askara iristean, eskuineko bideari jarraituko diogu, eta ezkerrean dagoen errepeidea alde batera utziz, eskuinera doan aldapa beheara batetik joango gara, borda batera iritsi arte. Ondoren, eskuinera doan grabazko bideari jarraituko diogu.
- 3 Grabazko bidea bukatu, eta mendiko bide batean sartuko gara. Behin puntu altuenera iristean, bidea utzi eta eskuinera aterako gara. Bi harri multzo pasa eta Aldazko mugara iritsiko gara. Bertan dauden eskailerak pasa eta zuzen Aiztondoko puntaraino igoko gara.
- 4 Azkenik, Aldatzera itzultzeko, mendi puntatik eskuinera jaitsi eta grabazko beste bide batera iritsiko gara; ezkerrean jarraitu, eta hasierako lekura iritsiko gara.





KASKAMOTZ EGITASMOAK 8.000 EURO INGURU BILDU DITU MINBIZIA IKERTZEKO


Lekunberriko Kros solidarioaren ostean, apirilaren 1ean alaitasunez bete zuen Kaskamotzek Uitz: berrehun lagunetik gora bildu ziren elizan Josune Martiarenak, Joxean Goikoetxeak, Juanma Urrizak eta Txema Garcesek gidatutako kontzertua aditzeko. Ondoren, Larraun Kantuz-ek alaitu zuen elkarteko afari solidarioa. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete beren aletxoak utzi duten guztiei, "txispa hau pizteagatik eta erantzun onagatik". Adierazi dute 8.000 euro inguru bildu dituztela Cris Contra el Cáncer fundazioarentzat.

18



ZAHAR ETXEETAKO HITZARMENAREN NEGOZIAZIOAK ETENDA DAUDE

Nafarroako zahar etxeek orain dela hainbat hilabete hasitako borroka ez da amaitu, oraindik ere ez baitute lortu Nafarroako lehen hitzarmen kolektiboa. Kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren lan-baldintza duinak aldarrikatze aldera, zaintzaren sektoreko langile batzuek hiru greba egun egin zituzten apirilaren 18tik 20ra, eta azken egun horretan, gainera, manifestazioa egin zuten Iruñean. Beteluko Amavir zahar etxeko langileak ere bertan izan ziren, prekaritatea salatzeke eta Nafarroa mailako lehen hitzarmen kolektiboa eskatzeko.



MARTXAN DA OSTOTS ENERGIA KOMUNITATEA ARAITZ-BETELUN

Goiener energia kooperatiba bidelagun, Araitz eta Beteluko hainbat herritarrek abian jarri dute Ostots izeneko energia komunitatea. Hasteko, Energia Bulegoa jarriko dute martxan, non aurretik ordua eskatuta kontsumitzailearentzako aukera egokienak bilatuko dituzten. Horretaz gain, autokontsumo partekatuko instalazio fotovoltaikoak bultzatzeko asmoa dute. Harremanetan jartzeko, info@ostots.eus helbidera idatzi edo 633 714 138 telefonora dei dakieke, arratsaldeko bostetatik zortzietara.



230 LAGUN ELKARTU ZIREN KINTO EGUNEAN

Urtetik urtera gero eta lagun gehiago elkartzen dira Kinto Egunean, eta aurten ere gazteek ez zuten hutsik egin: 230 pertsona inguruk bazkaldu zuten Lekunberriko frontoian —lehenengo aldiz egin da bazkaria bertan—. Bertsolarien saioaren ostean, Elektrotxandakakoek giro paregabea jarri zuten plazan, eta Oixanik parrandarekin segitu zuen gauean.

19

EHUN BAT LAGUN SAN MIGELEN LEHENENGO ETAPAN

Apirilaren 9an, Pazko egunez, San Migel Goiaingerua Aralartik atera zen Baraibarrera bidean. Eguraldi ederrak lagunduta, ehun lagun inguru bildu ziren mendiz ibilaldia egiteko. Hurrengo egunetan Beteluko, Araizko, Lekunberriko eta Larraungo inguruak igaro zituen, ondoren Imotz aldera jotzeko eta hilaren 17an Iruñera heltzeko.



GIRO POLITA SANTA ENGRAZIA EGUNEAN

Apirilaren 16an, Santa Engrazia egunarekin, jende asko bildu zen Uitziko ermitan. Eguraldi ederra baliatuta, eta ohiturari jarraituz, oinez joan ziren horietako asko. Inazio Azkoagak zuzendu zuen Uitziko abesbatzak lagundutako meza. Urteko aurreneko erromeria izaten da Santa Engrazia egunean ospatzen dena, eta herritarrek pozik eusten diote ohiturari.



Poztasuna eta osasuna, “bizi” bizitzeko

II. Emakume Artzainen Eguna ospatu zuten Arriben izandako Mendialdeko Azoka Ibiltarian. Araizko eta Beteluko emakume baserritarrak omendu dituzte oraingoan, urte hauetan guztietan egin duten lana goraipatzeko eta eskerrak emateko. Kontxi Irigoien Ezkurdia izan zen omenduetan helduena, baina, 93 urte izanagatik ere, bizipoza ez zaio falta. Arruitzen izanen da hurrengo azoka ibiltaria, maiatzaren 14an.

Behingoagatik, emakume artzainak, baserritarrak, izan ziren plazako protagonistak. Urteetan eta urteetan itzalpean, isilarazita eta errekonozimendu apurrik jaso gabe gau eta egun lanean aritu diren baserrietako habe nagusiak, izan aziendarekin, etxeko lanetan, zaintzan nahiz beste hamaika egitekotan. Hain justu, II. Emakume Artzainen Egunak eman zien horretarako abagunea, Arriben antolatutako Mendialdeko Azoka Ibiltariaren barruan, eta herritarrak haien inguruan elkartu ziren plazan, haiei so, mirespen eta aitortzaz

“Bizi garen bitartean, denok disfrutatu behar dugu”

betetako ekitaldian. Omenaldi hasieran esan zuten bezalaxe, emakume baserritarrei esker mantendu baitira bizirik baserriak, herriak eta transmisioa. Iaz, Larraun eta Lekunberriko emakumeak omendu zituzten, eta aurten testigua Araizko eta Beteluko emakumeei pasatu ondoren, heldu den urtean Leitzako emakume baserritarren txanda izanen da. Antolatzaileen arabera, egun “ederra” izan zen, eta omenaldian parte hartu zuten guztiei beren eskerrik beroenak eman nahi izan dizkiete. Dena den, jakitun dira emakume batzuk faltatu zirela:

“Espero dugu inor mindu ez izana. Badakigu ardiarekin eta baserrian lan egiten duten emakume asko geratu direla deitu gabe. Hauen lana ere goraipatu eta hauspotu nahi dugu”. Azoka ibiltariak beste hainbat geltoki eginen ditu heldu diren hilabeteetan; maiatzaren 14an Arruitzen jarriko dituzte beren postuak artisauek, eta ardi latxaren enkantea ere eginen dute, iaz Gorritin egin zuten moduan.

Ibarreko hemezortzi emakume eseri ziren bata bestearen ondoan. Segur aski, haiek uste baino gauza gehiagotan etorriko dira bat, eta elkari begiratzeko eta hitz egiteko maneran begi-bistakoa zen konplizitate hori, lotsaturik baina harro ikusten baitzitzairen, baita hunkiturik ere. Hala ere, bakoitzaren berri norberak baino ez daki, eta, horregatik, emakume bakoitzak bere istorioa gordetzen du irribarre konplize horren atzean, esku gogortuek eta zimurrek bizitakoaren zantzurik utzi arren. Asko bizitakoak ziren guztiak, baina bazen gainerakoek baino gehixeago kontatzen zezakeen bat: Kontxi Irigoien izan zen omenduetan helduena, eta hari eskatu zioten garai berriko gazta moztea. Pozarren heldu zuen labana esku artean, eta txalo zaparrada baten abaroan partitu zuen.

Alegria ez baitzaio sekula falta Kontxiri. Igande hartan ere gogotsu jaitsi zen Arribera, “begiak bendatuta bezala”, zer gertatuko zen eta zein bilduko ziren jakiteko irrikaz. Ailegatu orduko “ikaragarriko errezebimendua” egin zietela kontatu du, gozo gosaldutara elkartean, eta plazako omenaldian ere oso gustura sentitu zela. Bera gustura sentitzeaz gain, gainerakoak ere gustura sentiarazten dituzten horietakoa baita, eta argi dauka beti izan behar duela hala: “Bizi garen bitartean, denok disfrutatu behar dugu”.

Bizi-bizi bizi da orain, egunetik egunera “hobeki”, baina 1929an jaio zenetik lana gogotik egindakoa da. Beteluko Olanotxiki etxean jaio zen, eta bi anai-arreba ziren. Aita Oderizkoa zuten, argina lanbidez,



Kontxi etxekoekin, Uitziko Iriarte etxean. Arg: Labrit

“Bakar-bakarrik nintzen ohatzean seigarren umea jaio zenean; eskerrak preparatuta nengoen”

eta amak, berriz, Sorabileko bainuetxean egiten zuen lan, garai hartako hotelean. “Soro batzuk ere ibiltzen genituen errentan hartuta, Baldenekoak-eta...”. Hala ere, “oso pobreak” zirela gogoratzen du, baina jatekoa ez zitzairen sekula falta izan. Aziendak ere, dezente: “Ahuntzak eta txerriak genituen. Txerri asko hazten genuen, gero saltzeko. Ahuntz esnea aitak edaten zuen, eta guk Mitxikoneko edo Matxineko behi esnea. Txekor bat edo beste ere hazitzen genuen. Ahal bezala ateratzen ginen aurrera”. Txerriak ez ziren, ordea, saltzen zuten bakarra, amak arrautzak saltzen baitzituen: “Nire ama arrautzen tratuan ibiltzen zen, eta nik batzuetan lagundu egiten nion. Inguruko herri hauetako



Kontxi Irigoien gazta mozten, Arriben egindako azokan. Arg: Labrit

arrautzak biltzen zituen, Azpirotzen, Errazkinen, Gaintzan, Uztegin... eta gero Tolosara eramaten nituen saltzeko, larunbatero”.

14 urte zituela, Intzako izeba bat zaindu behar izan zuen, “eskolatik atera eta segituan”. Izeba hark ez zuen umerik, eta harekin bizimodua egitera eraman zuen amak, gaizkitu zen arte. “Gero gaizkitu zenean ere han nintzen”. Ondoren, Lekunberriko Ayestaran hotelean

“Arteraino emakumeek ez zituzten galtzak janzen; ni izan nintzen inguruko aurrenekoa, 30 bat urterekin”

hasi zen lanean, garbiketa lanetan eta zerbitzari bezala. Eta hala ailegatu zen Uztegira, 1952. urtean, Iriarte etxera, maitasunak itsututa, haren “zeruko aingeruarekin”: Gracian Goikoetxea Otamendirekin. “Oso gizon berezia zen niretzat”, akordatu da senarrarekin. Uztegi elizan ezkondu ziren, hiru apezaren bedeinkapenarekin, eta etxean egin zuten banketea. Eztei bidaietan ere joan ziren, bizilagunari 9.000 pezeta eskatuta, eta Donostia eta Iruñea izan zituzten helmuga. Gogoan du Donostiako funikularrean ibili zirela eta ederki jan zutela, hainbeste non senarra gizenago itzuli baitzen. Halere, nahikoa: “Diruarekin bueltatu ginen!”.

Etxean eta bakarrik erditzen

Ettxeko aurreneko alaba 1954an jaio zen. Kontxi Tolosara joana zen, erosketak egitera, eta konturatu ere ez zen egin urak botata zituela. Inora joateko denborarik gabe, koinata baten amaren etxean erditu zen. Abailan etorri ziren gainerako seme-alabak: 1955ean bigarreana, 1956an hirugarrena... Bederatzi izan zituen hamar urtean. Eta, aurrenekoa izan ezik, gainerakoak etxean bertan jaio ziren. Seigarrena, gainera, Kontxik berak tira eginda jaio zen, ohatzean bakar-bakarrik zela: “Karnabalak ziren Uztegin. Ettxeko bi aitonek seme-alabak hartu eta plazan ziren. Nire gizona eta ni bakarrik ginen etxean. Ekonomika zahar bat genuen, eta hura piztu nahi zuen senarrak ur



Kontxiren alabak Matias Goikoetxearekin, osabarekin. Arg: 'Araitz-Beteluko ahotsak' liburua.

beroa izateko, baina eginahalak eginda ere, ezin. Azkenean, ni bakarrik nintzen ohatzean umea jaio zenean”. Senarraren amonak erakutsitako erremedio batekin moldatu zuen dena: “Esan zidan toalla bat preparatzeko, eta lokarri bat alkoholean sartzeko, kotoi puska batekin. Garai hartan aspirinak kristalezko hodi batzuetan izaten ziren, eta halako batean neukan gordeta dena. Eta tokatu! Eskerrak preparatuta nengoen”. Zilbor hestea lokarri horrekin lotu zuen, eta medikua ailegatu zenerako dena txukunduta zeukan, baita karena ere, ontzi batean gordeta.

Jendez gainezka etxea, eta behiez beteta ukuilua. “Behizaina” izan baita Kontxi, hori ere “artzain” izatea kontsideratzen ote den galdetuta hori erantzun baitu segituan. Uztegi joan zenean, ehun bat ardi eta lau behi-edo zeudela esan du, eta bi uztarriko, orduan ez baitzuten traktoririk. Baina senarraren aita zen etxeko artzaina, eta lanak egitea gero eta gehiago kostatzen zitzaionez,

Gracianek pentsatu zuen ardiak saltzea eta behi gehiago jartzea izanen zela onena. Hala, Beteluko Baldenea etxetik bi behi ekarri zituzten, eta, pixkanaka-pixkanaka, behitaldea handituz joan ziren, dozena bat inguru izateraino.

Ume egin berritan hiru aldiz jezten zituen behiak Kontxik, goizean, eguerdian eta gauean; 100 litro baino gehiago biltzen zituen. Esnezaleari Antsoneara eramaten zitoen esnea, astoari karroa erantsita. Gona jantzita, baina, ezin eroso egon hankak zabaldua behiak eskuz jezten, eta ordura arte inguruko emakumeek egin ez zuten zerbait egin zuen: galtzak jantzi. “Arteraino inork ez zituen jantzen. Inguru honetan ni izan nintzen galtzak jantzi zituen lehendabiziko emakumea; 30 bat urte nituen ordu hartan. Eskuz jezten nituen, eta hankak zabaldua... bestela nola?”. Tuberkulosia ailegatu zen ukuilura 1978 inguruan, eta azienda guztia kendu behar izan zuten. Kolpe gogorra izan zen familiarentzat, baina, dena

desinfektatuta, behiak jarri zituzten berriro ere. Ordu hartan, Bizkaitik ekarri zituzten bigak.

Tamalez, gazte hil zen Gracian, 64 urte zituela, eta Kontxik bere onena eman behar izan zuen familia eta etxea aurrera ateratzeko. Seme-alabak beti izan ditu laguntzeko prest, bizitzako bidelagun, eta gaur egun ere haien abaroan eta konpainian bizi da, zoriontsu eta ingurukoak alaitzeko prest. Bizi duen guztia gogora ekarrita, sinestezina iruditzen zaio dena, baina orain egunerokoak gozaten saiatzen da: larunbatetan, Tolosako feriara joaten da; igandetan, jatetxeren batera edo alabaren baten etxera bazkaltzea... Ederki bizi dela dio. Familia elkartuta ikusi nahi du, eta horixe du gustuko, maite dituenekin egotea eta haiei gozaraztea. Hain ongi eta alegre egoteko sekretua zein den ere aitortu du: “Osasunari kasu egin, ez erre, ez edan, eta alegre bizi! Bizitza bat da, eta denok bizi behar dugu ahalik eta alegreena”.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.

ALLI

Martillo Txikiren burrunba Allin barrena

Martxoaren 29tik 31ra, Alliko Akelar-ikuilutik batera hotsak entzun zitezkeen. Martillo Txiki perkusio eskolak kontzertuak eman zituen hiru egunotan, musika, merienda eta giro ona uztartzen zituen ordu eta erdiko formatuan. Urtero bezala, ikasleek urte osoan ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten, baita primeran pasatu ere, eta haiek aditzera joan zirenek izugarri gozatu zuten burrunba artean.



AZKARATE ETA UITZI

Maiatzaren 19an izanen da II. Mingaña Saltsan lehiaketako finala

Atekaerts Leitzako bertso eskolak Mingaña Saltsan bertso-afari sariketaren bigarren aldia antolatu du, eta Azkaraten eta Uitzin izan ziren aurreneko bi kanporaketak. Azkaraten, apirilaren 21ean, Etxahun Lekue eta Aratz Igartzabal sailkatu ziren finalerako, eta apirilaren 28an Uitzin egindakoa saioan, berriz, Millan Telleria eta Onintza Enbeita. Maiatzaren 5ean Goizuetan hartuko dute txapelketa, eta Arrate Illaro, Agin Laburu, Ekhiñe Zapiain, Diego Riaño, Maialen Akizu eta Eneko Araiztegi Korta izanen dira kantuan. Azkenik, finala maiatzaren 19an izanen da, Leitzako Torrean.

BAIGORRI

Lekunberri-Larraungo konpartsa Nafarroaren Egunean

Lekunberri-Larraungo konpartsak Baigorri, apirilaren 30ean, ospatu zen Nafarroaren egunean hartu zuen parte. Milaka lagunek hartu zuten parte festan eta giro ederrean joan zen eguna.



Arg. Lekunberri-Larraungo konpartsa

LEKUNBERRI

Irekita dago Malloak Contact Festivalen izena emateko epea

Oskar Estanga araitarrak eta Miren Aingeru Saralegi lekunberriarrak topaketa berezi bat antolatu dute uztaileko: uztailearen 5etik 9ra, Malloak Contact Festival izeneko jaialdia izanen da Lekunberrin. Dagoeneko irekita dago izena emateko epean. Informazio gehiago nahi izanez gero eta festibalean parte hartzeko, sartu malloakcontactfestival.eus webgunean edota idatzi malloakcontactfestival@gmail.com helbidera.



MOTZ-MOTZEAN

VERONICA SATRUSTEGI

Batzuen pobrezia beste batzuk aberastu daitezzen

Ahaztu xamar dagoen gai bat ekarri nahiko nuke gaur mahai gainera. Bueno, egia esan, deus gutxi entzun dugu asuntoari buruz bertako komunikabideetan. Azken hilabeteetan, herritarrak kalera atera dira eta indar armatuen bortizkeriak 60 hildako baino gehiago utzi ditu. Gehienak Puno eskualdean, Boliviarekin muga egiten duena.

Kasualitatea? Ez dut uste.

Bat: Punok munduko seigarren litio erreserba handiena dauka. Txile eta Boliviako erreserben gaineratik.

Bi: egun, litioaren tonak 65 mila dolar balio du; 2003an, 450 dolar.

Hiru: litioari "etorkizuneko urre" deitzen diote batzuek. Ezinbestekoa da bateriak sortzeko, adibidez.

Lourdes Huancak, Peruko aktibista indigenak, argi zioen elkarriketa batean: "Estatuak, enpresa handiek eta multinazionalak arpilatutako lurretan bizi diren perutarrek nazkatuta daude herrialdea puska-puska nola saltzen den ikusteaz. Nire herrialdea gas produktore garrantzitsuenetarikoa izanda, nola da posible jendea hotzez hiltzen jarraitzea? Peruko litioak Perun gelditu behar du. Krimena da Peruko litioa ez bada erabiltzen Peruko herritarren bizi baldintzak hobetzeko". Eta hementxe gakoa: "Litioa ezinbestekoa da energia berriztagarrien aldeko apustua egiteko". Zaharrak berri, beraz. Munduko iparraldeak litioa behar du ahoa "energia berdeen" ideiarekin betetzeko eta harropuzteko. Hau da, ipar-mendebaldeko hegoaldeko herri (eta herritarren) pobretzea behartuz aberasten jarraitu nahi du.



ASEGURU AHOLKULARIAK
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

aseguru gintza XXI

▶ aseguruak@aseguruak.eus
▶ 943 65 22 20
▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

CONSTRUCCIONES ERAIKUNTZAK CONSTRUCCIONES URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK FATXADAK ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri



Araxes Herri Kirol Taldeak Nafarroako Kirol Jokoetan parte hartu du

Kimuek (11-12 urteko neska-mutilek) proba konbinatuan hirugarren postua erdietsi zuten 27 talderen artean, gainera, ia bigarren taldeak egindako denbora bera eginez. Haurrek (13-14 urtekoek) proba konbinatuan txapela lortu zuten eta hirugarren postua sokatiran. Kadeteek (15-16 urtekoek), konbinatuan bigarren saria irabazi zuten eta sokatiran bosgarren geratu ziren. Oso emaitza onak guztiak, taldearen tamaina kontuan izanik.

Apirilaren batean hasi zen Nafarroako helduen 4x4 sokatira txapelketa, maiatzaren 20an bukatuko da. Araxes taldeko neska pisu handi eta arinean ari dira eta mistoan ere lehiatuko dira.

XVII. Aralarko ibilbiderako izen-emate epea zabalik

XVII. Aralarko ibilaldirako izen-ematea zabalik dago, maiatzaren 2tik ekainaren 9ra. Ibilaldiak ez du izaera konpetitiborik eta, kirola sustatzeaz gain, gure herrien ezagutza du helburu. Hori dela eta, ibilbidea gauzatzeko gai diren pertsona guztiei egin nahi zaie gonbita. Informazio gehiagorako: <https://larraun.info/ttutturre/>



Orientazio mendi martxa Aralarren barrena, ekainaren 4an

Nafarroako Kirol Elkarteak orientazio mendi martxa bat antolatu du ekainaren 4rako, Aralarren. Hau izanen da ibilbidea, gutxi gorabehera: Baraibarko antenan hasi eta Malloetako zonatik pasata, ibilbide zirkularra osatuko dute parte hartzaileek. Bi ibilbide izango dira: bat 20km-koa izanen da, eta bestea, berriz, 10km-koa. Herritar guztiek izan dezaten parte hartzeko aukera, familiar, lagunartean edota bakarrik egin ahal izanen da, oinez edota korrika. Gainera, ez da sailkapenik edo halakorik izanen.

Orientazio martxaren berezitasun nagusia da Aralar beste era batera ezagutzeko aukera ematen duela, iparrorratz baten eta mapa baten laguntzarekin. Ibilbidean zehar balizak aurkitu beharko dira, eta horiek txoko berezi eta ederretan egongo dira gordeta. Informazio gehiagorako, sartu www.cdnavarra.com orrialdean.

Lekunberriko Disc Golf Torneoa egingen dute ekainaren 2an, 3an eta 4an

Aralar Erronka izena jarri diote Lekunberrin ekainaren 2tik 4ra bitartean egingen duten disc golf torneoari. Espainiako Discgolf AEDG 2023 Koparen barruan jokatu da, Discport.eu eta Yooandok babestuta. Metrix plataforman eman beharko da izena, <https://dgmtrx.com/2494535> helbidean sartuta —25 euro ordaindu behar da izena emateko—. Oraindik trebatzen ari direnentzat ere izanen da jolasteko aukera, ostiralean, bikoteka. Izan ere, urtariletik disc golfean jokatzen ikasteko eskolak ematen ari dira Plazaola kiroldegian, eta maiatzean ere izanen dira eskolak. Lehia nagusia, berriz, hiru txandatan jokatu da, hainbat kategoriatan banatuta.



Informazio gehiagorako, sartu QR kode honetan edota Lekunberri Kirol Elkartearen Instagram kontuan (@lekunberrike).



Erreka bere erritmora doa

Orain urte eta erdi pasatxo hasi nintzen terapiara joaten. Hiru urtetako prozesu batean sartu nintzen, beldurrez, zer aterako zen, larri diruarengatik... Azken aldian hartu dudana erabakirik onenetakoa dela sentitzen dut orain. Barne aldaketa asko ari naiz nabaritzen, ideienak, barne emozioenak, munduaren aurrean nola kokatzen naizen...

Txikitan gertatutako egoera askok beren marka utzi zidatela ohartzen ari naiz, orduan lagundu zidaten jokaereak (alaittua izatea, irudimenean babes hartzea nire sentipen "triste" batzuetatik ihes egiteko...), gerora kalte egiten zidatenek, momentuan gertatzen ari denari egokitzen uzten ez didatela. Barne mugimenduen kontzientzia handiagoa ere hartzen ari naiz, beldurrak, tristurak, idealizazioak... pixkana haietaz ohartuz, behar ez ditudanak joaten uzten.

Sorpresa hartzen dut, terapia saio batean, nire funtzionatzeko modu ez kontziente batez ohartzen naizenean. Adibidez, azkenekoan ohartu nintzen joera dudala gauzak di-da egiteko, aukera gehiago izango ez banitu bezala... oso azkar, dagokion denbora eman gabe, aurrean dudana ikusi gabe...

Terapeutak sarri esan izan didan esaldia datorkit orduan burura: "Gehiago bultzatzeagatik, ez da erreka azkarrago joango. Bizitza eta ekintzak dira erreka hori, beren denbora behar dutenak. Beren erritmora joanda gauzak errazagoak direla ohartzen hasia naiz, ni ere lasaiago noala; denbora dudala benetan pasatzen dena ikusteko, gertatzen dena kalitate hobekoa dela..."

Nik ere badut eragina erreken abiaduran, ea zein presa irekitzen ditudan, laku bat osatzen badut nire barnean... Beraz, erreken berezko erritmora joaten saiatuko naiz, bertan topatzen ditudan beste hosto eta erreka bazterekin eta, noski, urarekin ere momentua biziz... Laster arte ba!



NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com
Argazki gaztiak: Juan Antonio Garaikoetxea

AMAIRU BAR
ETXKO PIZZAK,
KOPA BEREZIAK
948504352

Antsoñea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsoñea.com
Uztegi (Araitz)



Etxeko txikiak dibortzio prozesuetan

Aurreko egunean, podcast batean parte hartzeko eskatu zidaten dibortzioari buruz hitz egiteko. Iruditzen zait bere garaian gai honi buruz asko hitz egin zela, baina, gauza asko bezala, modaz pasatu zela.

Hala ere, oraindira ekarrita, gauza batzuk gogoratzea garrantzitsua iruditzen zitzaidan.

Zalantzarik gabe, garrantzitsua da gogoan izatea dibortzioa bikoteak pasatzen duen dolu bat dela. Une zaila da, eta denbora,

babesa eta autozaintza behar dira prozesuan aurrera egiteko.

Baina gaur etxeko txikiei erreparatzea gustatuko litzaidake. Handiki ahaztuak gehiegitan, iruditzen zaiguna baino gehiagotan.

Datu batzuk irakurrita, ikusi nuen bikoteen % 19k erabakitzen zuela ez dibortziatea, seme-alabei kalterik ez eragitearren. Une batez, gelditu, eta horri buruz hausnartuko dugu. Benetan hobe da haurra maite ez den, hitz egiten ez den edo etengabe eztabaidatzen ari

den etxe batean bizitzea? Zein da egoera horri buruz egin dezaketen ikaskuntza? Hori da erakutsi nahi diegun egoeren kudeaketa?

Hurrek seigarren zentzumen bat dute emozioetarako, zerbait gertatzen ari dela sentitzen dute, nahiz eta zer den zehazki definitzen ez jakin. Gurasoen suminkortasuna eta haserrea nabaritzen dute, euren arteko hitzak hain atseginak ez direla nabaritzen dute, eta adinaren arabera, jasotzen ari direnaren erantzukizuna lepora diezaiketere beren buruari. Oso interesgarria

da analisia eta, orduan, zer egiten dugu honekin? Izan ere, honako hauek dira dibortzio-prozesu batean jarraitu beharreko edo saihestu beharreko jarraibideen oroigarri batzuk:

- ▶ Esan egia beti. BAINA kontuan izan adin ebolutibora egokitu behar duzula, eta bikote-xehetasunak bikote-xehetasunak direla, pareko bizilagunari eta seme-alabei kontatuko ez zenizkiekeen bezala.
- ▶ Mantendu seme-alabak helduen arteko gatazketatik eta eztabaidetatik kanpo. Familiako gauzak bikotekidearekin partekatzen dira, ez seme-alabekin.
- ▶ Izena jartzen, adierazten eta sor dai-

tezkeen emozioak kudeatzen lagundu. Jolasak, liburuak eta marrazkiak erabilita.

- ▶ EZ ERABILI HAURRAK MEZULARI GISA (letra larriz doa, oso garrantzitsua baita).
- ▶ Bi gurasoak familiaren parte gisa normalizatzea bi etxeetan. Jarri bi senideen argazkiak, hitz egin haien errutinei eta anekdotei buruz bi etxeetan...

Gogoan izan behar dugu, helduak garen aldetik,

oraindik autonomiaz egiteko gaitasunik ez duten pertsona horiek babesteko eta zaintzeko ardura dugula.

Prozesu hau pasatzen ari diren pertsonen besarkada handi bat, eta, mesedez, idatziezadazue zerbait ulertu ez bada edo laguntza behar baduzue.

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefona eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

Construcciones Gañarbe
ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK
Oztegin kalea 2, Lekunberri 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com 636 827 846



UDAKO TAILERRETAN BEGIRALE ARITZEKO DEIALDIA

Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Euskara zerbitzuak, haurrentzako Udako Tailerrak antolatuko ditu aurten. Tailerretan hezitzaile aritzeko deialdia da honako hau.

IZANGAIEN BALDINTZAK

- ▶ 16 urte eginak izatea.
- ▶ Euskaraz, ahoz zein idatziz, ongi moldatzea.
- ▶ Haur eta gaztetxoekin lanean aritzeko gaitasuna izatea.

AINZAT HARTUKO DIRA:

- ▶ Euskaraz C1 maila izatea.
- ▶ Hezitzaile titulua izatea.

IZEN EMATEA

Deialdian parte hartzeko interesa baduzu, jarri zaitez harremanetan euskara zerbitzuarekin, honako posta helbide elektronikora idatziz edo telefono zenbakira deituz:

- ▶ larbeleareuskaraz@iparmank.eus
- ▶ 948504400

Izena emateko azken eguna:

maiatzak 25

30

PELLO APEZETXEA ZUBIRI

IKERKETA BEKA
2023



Pello Apezetxea Zubiri ikerketa beka aurkeztu dute Euskaltzaindiak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak

- ▶ Deialdi honen xedea da soziolinguistika, dialektologia edota onomastika arloetarako ikerketa lan bat egiteko beka ematea eta Pello Apezetxea Zubiri euskaltzalea omentzea.
- ▶ Bekaren saria 7.000 eurokoa izan da eta asmoa dago lau urtean behin egiteko. Ikerketa eta gainerako baldintza guztiak edizio bakoitzeko oinarrietan jasoko dira.

Informazio gehiagorako:



<https://bortzirietak.eus/euskara-bortzirietan/pello-apezetxea-ikerketa-beka-2/>

AGENDA

MAIATZA

- 6- Auzolana Lekunberriko galtzinlabean
- 6- Umeen Eguna Beteluko Araxes eskolan. 11:30ean, tailerrak; 14:00etan, bazkaria; 16:00etan, magia saioa; 17:30ean, merienda; ondoren, zunba erakustaldia eta musika.
- 6- Printza: kale eskalada, 11:00etan, Printza atarian hasita.
- 12- Printza: Mahai ingurua: proiektu txikitzaileak eta nola aurre egin, 18:00etan.
- 13- Lekunberriko galtzinlabearen inaugurazioa, 12:00etan.
- 14- Mendialdeko azoka eta Latxa arrazako ahari genomikoen II. enkante nazionala Arruitzen.
- 14- Printza: lehen sorospen tailerra, 17:00etan.
- 20- Nafarroako eskubalo txapelketaren finalak (kade-

teak, infantilak, kimuak) Lekunberri.

20- Neuromagia. La magia vista desde la neurociencia, Iñaki Aguirrezabal medikuaren eta J. Ángel Suarez ilusionistaren eskutik, Beteluko Zigari elkartearen, 18:00etan.

20- Printza: baratza landu, 18:00etan.

26- Bertso saioa: Nafarroako bertsolari txapelketako lehen kanporaketa. Gabarin.

27- Txirindularitza probak Lekunberri

28- Erremonte txapelketa Lekunberri.

EKAINA

2, 3, 4- Lekunberriko Disc Golf Torneoa.

3- Euskal Herria Mendi Erronka mendi lasterketa.

4- Orientazio mendi martxa Aralarren, Nafarroako Kirol Elkarteak antolatua. Informazio gehiago: www.cdnavarra.com.

31

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KOMPONTEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaldea 19,
Lekunberri
MARTILO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA
www.martiloxiki.com
679 938 016

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

Atabal
okindegia
Era askotako
ogiak eta gozoak
Etxez etxe
banatuko dugu
Ogia enkargatzeko...
948513151

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

GALBURU
okindegia - panaderia
Egur-labeen egina!
Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK
Granja Martikonea, GAINZA, Nafarroa
Jabi, 649 472 057 + Iosune, 660 511 097
Malloak.com | info@malloak.com
IDIAZABAL

aitz berri
edertasun zentroa
Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com
Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologoa
Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpaitan
Mikroblading bekainetan

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**
URZUBI S.A.
Lekunberri
Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20
urzubi@hotmail.com

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

**BAZKIDERIK
GABE, MAILOPEK
EZ DUELAKO
GERORIK...**



MAILOPE



Errigorako kaxa bana zozkatuko ditugu orain arteko bazkideen eta maiatzaren 20a baino lehen bazkide egiten direnen artean.

Eskerrik asko, Mailope sostengatzen duzuen guztioi, eta zorte on zozketarekin!



Urtean 50 euroko bazkidetza egiteko,

638 65 23 39 telefonora deitu,
mailope@labrit.net helbidera idatzi

edo formularioa bete honako helbide honetan:
mailope.eus/bazkidetza